

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa behin betiko onestea, Arkautiko 20. poligonoko 30, 31, 33, 35, 36 eta 37 katastro-lursailen lerrokadurak doitzeko

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2018ko apirilaren 20an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa behin betiko onestea, Arkautiko 20. poligonoko 30, 31, 33, 35, 36 eta 37 katastro-lursailen lerrokadurak doitzeko.

Erabaki-proposamena

Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa bat egiteko proiektua ikusi da, zein Arkautiko 20. poligonoko 30, 31, 33, 35, 36 eta 37 katastroko lursailen lerrokadurak doitzeko baita. Proiektua udaleko Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeke Zerbitzuak egin du, 2018ko urtarrilean.

2017ko abuztuaren 23an, Arkautiko administrazio-batzarrak aurkeztutako idazkia sartu zen udalaren erregistroan, eta 20. poligonoko 30. eta 31. katastro lursailetakoa espazio-libre kalifikazioa kentzeko eskatzen zuten.

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Nekazaritza Eremuaren Zerbitzua lursailen kalifikazioa egungo errealitatera egokitzeke eskabide horrekin bat agertu zen, 2017ko abuztuaren 28an egindako txostenean, urbanizatutako bidea nahikoa zabala da eta.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketak hauxe du xede:

– 30 eta 31 lursailen zati baten kalifikazio xehatua aldatzea, eta erabilera publikoko espazio librearen sistema lokala izatetik (ES-LI), menpeko toki-erakundeetako familia bakarreko etxebizitzetakoa izatera (1. gradua -RE-OR-10.1) pasatzea, eta hartara bertan dauden urbanizazio eta lursailen itxituren lerrokadurara egokitzea.

– 31, 33, 35 eta 37 lursailen muga egungo topografiara (lursailen itxituren lerroa) doitzea ekialdeko perimetroan (bide-sarearekin du muga).

35. lursailaren muga egungo topografiara (lursailen itxituren lerroa) doitzea hegoaldeko perimetroan. Oraindik kudeatu gabe dagoen erabilera publikoko espazio librea du muga, 36 eta 37. lursailak.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuaren oroitidazkian honako hauek aipatzen dira, besteak beste: haren xedea, esparrua, ekimena, aurrekariak, egokiera eta beharra eta proposamenaren deskribapena, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko otsailaren 2an egindako bilkuran eman zitzaion hasierako onespena Plan Orokorraren xedapen aldaketa horri, idatzitako proiektuarekin –dosierrean jaso– bat etorri.

Udalbatzaren erabaki hori 2018ko otsailaren 16ko ALHAOn (20. zk) eta 2018ko otsailaren 9ko Diario de Noticias de Alava egunkarian argitaratu zen, eta aldakuntzari buruzko dokumentazioa hoguei egunez jendaurrean jarri. Ez da inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan.

Arkautiko administrazio-batzarrari 2018ko otsailaren 14an eman zitzaion erabakiaren berri, hoguei eguneko epean txostena eman zezan; Epe hori igaro delarik ez da ebazpen edo erantzunik jaso eta, horrenbestez, izapidearekin aurrera jarrai daiteke.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak 2.01.06 artikuluan xedatzen duenez, eremuen mugei dagozkien garapen tresnetan egokitzapenak egin ahalko dira, honako alderdiei dagozkienetan: lerrokadurak edo indarrean dauden eraikuntzetarako lerroak, edo hiri edo landa jabetzen mugak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek plan orokorraren eduki substantiboa eta hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa zehazten dituzte, eta plan orokorraren aldakuntzak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldakuntzaren xedera egokituta.

2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 30. artikuluan ezartzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldaketaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernuaren Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua — 123.1.i artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldaketaren ildotik — dosierraren parte diren hirigintza-agerietan justifikatzen da horren beharra eta egokiera —, aipatutako arauak aintzat harturik eta Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeak — abenduaren 16ko Tokiko Gobernuaren Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua — 122.4 a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, hauxe proposatzen dio Hirigintzako Batzordeak Udalbatzari:


Erabakia

1. Behin betiko onestea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen-aldaketa, Arkautiko 20. poligonoko 30, 31, 33, 35, 36 eta 37 katastroko lursailen lerrokadurak doitzeko. Proiektua udaleko Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak egin du, 2018ko urtarrilean, Arkautiko administrazio-batzarrak eskatuta.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

Aldatutako arauak



Gasteizen, 2018ko apirilaren 24an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE